

Hor konpon. Txikien

ASTOBIZKAR MENDIGOIZALE TALDEA
SAN FERMIN IKASTOLA
Zizur Menor (Nafarroa)
Alumnos de 7.º EGB

Nerea Loizaga, 12 urte.



MUNDU EZKUTUA

Iñigo Martínez Monasterio

Gu bizi garen hirietan zarata eta ke asko dago. Giro egokia ez denez animalia gehienek alde egin dute. Hiri batetik noizbait ateratzen bagara beste mundu bat ezagutzen dugu. Hemen haritzak pagadietan hazten dira eta hauen lurretan lore moeta asko dago. Pagadi hauetan animalia ugari bizi da. Hemen animalia batzuegatik hegazti batzuk bizi dira, eta animalia hauek lore moeta batzuei esker e.a. Horrela kate bat osatzen da, baina gizona ardi beltza da eta giroa hondatzen du. Gizonak leku askotatik apurtzen du katea. Pena da hain argi den «animali» horrek mundu hau hondatzea. Bere edertasunarengatik, alaitasunarengatik e.a. ikusgarria den mundua. Eskerrak azken urte hauetan «ekologistak» deritzaieen gizon batzuk honetaz ohartu direla. Oheratzen zaretenean pentsa ezazue animalia bat hiltzea gizon bat hiltzea bezela dela eta hau bakarrik egin behar dela beste erremediorik ez dagoenean.

Mendietan eta basoetan dagoen mondu horri,

BIDAI INTERESANTE BAT

*Lina Andueza
eta
Maite Eslava*


«Selba de Oza» kanpinan geunden «Selba de Oza» Hecho-ko aranan dago. Kanpinaren alboan badago mendi bat oso altua eskurtsio handiak egiteko, eta hango jendeak «Castillo de Acher» deitzen dio. Guk eskurtsio hori egin izan nahi genuen, eta hurrengo egunean goiz jeiki ginen eta ibiltzen hasi ginen. Mendiaren tontorrean badago haitzezko pareta handi bat, harresi moduan, horregatik deitzen de «Castillo de Acher».

Hasieran aldapa handiak zeuden, baina gero erregulatu egiten da bidaia. Txokolate asko jan genuen airubetak ez izateko.

Zuhaitzen artean ibiltzea oso polita da, eta gustora ibili ginen.

Denbora bat pasatu ondoren berriz aldapa handi bat zegoen, hemen bai nekatu ginela. Goian belarra gogorra da eta gainera bustia dago, eta baita behi asko ere. Behi hoiak hor daude urte osoan, eta neguan artzainak herriera eramaten ditu.

Nere amari ez zitzaizkion gustatzen behi hoiak, egia esan beldurra ematen zioten. Behiak ere gutaz ikarutzen ziren eta ez ziren gehiegi hurbildu. Oraindik asko falta zitzaizgun eta oso nekatuak geundelako kanpinara boltatu ginen.



Mikel García.

KOPLA TXIKIAK

Maite Eslava eta Lina Andueza

Ikusi nuanean
erortzen hostoa
estaltzen ari ziren
Manolo astoa

Gaur bertan pasatu naiz
mendi tontoretik
eta nik ikusi dituk
behiak urrutitik

IPUINA Basoko Abentura

**Gustabo Ezkurdia
eta
Roldan Jimeno**

Bazen Urbasa mendikatearen ondoan herrixka bat. Han bi anai-arreba bizi ziren. Mikel eta Miren, basoa eta basoko animaliak asko maite zituzten, horregatik askotan joaten ziren Urbasan zegoen baso batera, eta oso ongi ezagutzen zuten basoa.

Egun baten joan ziren basora eta zuhaitz batzu falta zirela ohartu ziren. Bapatean lainoa agertu zen, ez zen asko ikusten, eta galdu egin ziren, orduan gaua iritsi zenean lo geratu ziren zuhaitz baten ondoan. Lo zedenean soinu arraro bat entzun zuten eta esnatu egin ziren, eta argi tartean itzal batzu ikusi zituzten, eta sasi batzuren atzean izkutatatu ziren. Beraien harri durarako, fabrika bat zen ikusi zutena. Gizon estrainoek zuhaitzak moztu eta fabrikara eramaten zituzten. Kuriositatez joan ziren ikustera, eta fabrikara sartu ziren, han makinaria arraro bat zegoen zuhaitzak mozteko eta leuntzeko. Orduan han zeudenean, Miren erori egin zen eta makina baten kontra jo zuen, soinua sortuz. Fabrikako gizon batek entzun zuen eta hara joan zen. Korrika hasi ziren hirurak baina Mikel eta Mirenek ongi ezagutzen zuten basoa herrira lehenago heldu ziren. Asko pentsatu ondoren udaletxera joan ziren gertakizuna kontatzera. Han txatxetan zebiltzala uste zuten, eta udaletxetik bota egin zituzten, Mikelek eta Mirenek etxera itzultzean...



Fermin Eslava, 10 urte.

—Ez badigute sinisten guk fabrika basotik botako dugu, esan zuen Mikelek.

—Egia esaten duzu, eta gainera zuhaitzak landatuko ditugu, esan zuen Mirenek.

Gau hartan fabrika sabotatzea pentsatu zuten, eta fabrika menditik botatzera joan ziren.

Leku berdinerara heldu ziren eta fabrikara sartzean gizon handi eta indartsu batek hartu zituen, esanez:

—Mutikok, zer zabiltzate hemen?...

Mikel, Miren esnatu ikastolara joan behar duzue.

Gosaldu eta gero Mikel eta Miren ikastolara zihoazenean egurra zeraman kamioi bat pastu zen.

—Badakizu ze ametsa izan dudan Miren?, zion Mikelek.

—Zein? esan zuen Mirenek.

—Egun batean...

—Aibala, nik ere hori amestu dut!!!


—Zerengatik ez gara joaten mendira?

—Ondo!!!

Joan ziren mendira eta...

Fabrika bat dago!!!

AMAIERA



Iker Loriga, 9 urte.